

Industriaren Deskarbonizaziorako 2024ko Programaren eskaera egiteko erabiltzailearentzako gida

Zein da programaren helburua?

Industria-enpresen eta industriaren produktu-prozesuari lotutako zerbitzuen inbertsioei (aktibo finkoak) laguntzea, baldin eta berotegi-efektuko gasen (BEG) emisioak murriztu ingurumenaren babes-maila hobetzen badute, EBk hartutako arauetatik harago.

Zein dira diruz lagundutako jarduketa-motak?

Lagun daitezkeen hainbat jarduketa-ildo daude, hala nola:

- a) Existitzen den ekoizpen-prozesuarekin zuzenean lotuta dauden makinetarako inbertsioak.
- b) Existitzen den ekoizpen-prozesuan bestelako osagai laguntzaileetarako inbertsioak.
- c) Existitzen diren ekoizpen-instalazioekin lotutako inbertsioak (klimatizazio-sistemak, industria-pabiloiko berokuntza, etab.).
- d) Oraindik existitzen ez diren establezimendu edo ekoizpen-ildo berrietarako inbertsioak.

Nola lortzen da inbertsioen emisioak murriztea?

Berotegi-efektuko gasak (BEG) murrizten direla bermatzeko, honako hau egin beharko da:

- Erregai fosilak berriztagarriekin ordeztzea.
- Erregai berriztagarrien eta/edo elektrizitatearen erabilera murriztea.
- Baliabide naturalen erabilera murriztu edo optimizatzea
 - o Lehengai jasangarriak eta/edo bigarren mailako lehengaiak erabiltzea (birziklatuak edo beste prozesu baten azpiproduktua).
 - o Industria-hondakinak kudeatu eta/edo balorizatzea.
 - o Gas fluoratuak ordeztzea.

Ez dira diruz lagunduko CO2 harrapatu, erabili edo bahitzeko inbertsioak.

Erregai fosilak erabiltzen dituzten ekoizpen-prozesuetako gailu, makina eta instalazioetarako inbertsioen kasuan, aurreko b) kasuko inbertsioak bakarrik lagundu ahalko dira diruz, hau da, existitzen diren ekoizpen-gailu, -makina edo -instalazioen ingurumen-babesaren maila hobetzen duten "osagai laguntzaileetarako inbertsioak", baldin eta inbertsio berriak ekoizpen-ahala edo erregai fosilen kontsumoa areagotzea ez badakar.

Zein dokumentazio tekniko aurkeztu behar dut?

Enpresa eskatzaileek inbertsioen bideragarritasun tekniko, ekonomiko eta finantzarioa egiaztatu beharko dute memoria xehatu eta Excel inprimaki baten bidez.

Memoria teknikoa:

Eskatzaileek betetzeko plantilla ematen da, eta honako datu hauek adierazi beharko dira:

- Produktuari eta inbertsioa jasoko duen ekoizpen-prozesuari buruzko informazioa.
- Ekoizpen-prozesuaren deskribapena, inbertsioaren aurretik.
- Inbertsioa egin ondorengo ekoizpen-prozesuaren deskribapena. Bertan prozesuan sartutako elementuak azaldu beharko dira, bai eta ezaugarri garrantzitsuak edo energia-iturrietan egindako aldaketak, halakorik balego.
- CO₂eq emisioen murrizketa kalkulatzeko erabilitako kontsumo-balioen justifikazioa. Jatorriaren xehetasunak eta kontsumoen kalkuluak, baita kalkuluak egiteko erabilitako baldintzak ere. Justifikazio hori modu orokorrean egin beharko da eskaerarako, eta modu indibidualean aurkeztutako inbertsio bakoitzerako.
- Ekonomia- eta finantza-planaren xehetasuna eta horiek egiteko epeak, aurrekontu totalarekin, aurkeztutako inbertsioetarako banakatuta.
- Halakorik izatekotan, inbertsioa egin aurreko justifikazio-txostenak (energia-auditoretzak, deskarbonizazio-planak, produktuaren, prozesuaren edo erakundearen ingurumen-arrastoaren kalkulua...).
- d) jarduketa-tipologiaren kasuan, eskatzaileak aurkeztutako inbertsio bakoitzerako erabilitako erreferentzia-aktiboa adieraztea, azaltzea eta justifikatzea.

Kalkulu-orria:

Kalkulu-orria eman da Excel formatuan, eskatzaileek bete dezaten, enpresei ekidin dituzten emisioen kalkulua egiten laguntzeko. Horretarako, CO₂eq emisioen alderaketa egingo dute dirulaguntza eskatu den inbertsioen aurretik eta ondoren.

Kalkulu-orriak kalkuluan erabilitako emisio-faktoreak estandarizatzen ditu, eta, horri esker, eskaerak alderatu daitezke ebaluazio-fasean, bateratze-irizpideak kontuan izanda.

Kalkulu-orrian eskatzaile bakoitzak inbertsioan erabilitako erregaiak eta energia-iturriak, lehengaiak, hozgarriak edo hondakinak adierazitako ditu, eta horien kontsumoa

adieraziko da inbertsioaren aurretik eta ondoren. Halaber, eskatzaile guztiek dirulaguntzaren xede den inbertsioaren kostu totala sartu beharko dute.

Kalkulu-orrian eskatzaile bakoitzak sartutako kontsumo-datuak eta aurrez definitutako emisio-faktoreak erabiltzen ditu ekidin diren emisioak kalkulatzeko, eta inbertsio hautagarriaren eta ekidin diren emisioen arteko harremana kalkulatzeko du.

Nolakoa da kalkulu-orria?

Excelak 4 erlaitza ditu:

- “Jarraibideen” erlaitza: Kalkulu-orria egoki betetzeko eman beharreko urratsak adierazten dira. Ez da laukirik bete behar.
- “Proiektuaren datuak” erlaitza. Soilik erlaitza horretan bete behar da informazioa. Inbertsioaren aurretik eta ondoren erabilitako erregaiei, lehengai, hondakinei eta hozgarriei buruzko informazioa eskatzen da, bai eta kontsumoak eta inbertsioen kostu totala ere.
- “Emisio-faktoreak” eta “Emisio-faktoreak 2” erlitzak: kasu bakoitzerako kalkulaturako eta aipaturako faktoreak erakusten dira (erregaiak, lehengaiak, hondakin-kudeaketa edo hozgarriak). Ez da laukirik bete behar.

Nola betetzen da “Proiektuaren datuak” erlaitza?

Inbertsioei dagozkien datuak hondo urdin eta horia duten gelaxketan baino ez dira sartu behar.

Hondo urdineko gelaxkak (C zutabea, “hautatu”): lehenik eta behin, lehen taulan erabili den eta/edo erabiliko den erregaiak hautatu behar da, eta aukeren artean balio bat aukeratu behar da. Hautatzean, “unitatea” eta “emisio-faktorea” zutabeei dagozkien gelaxkak automatikoki beteko dira.

Lehengai, hondakin-kudeaketa edo hozgarri eta beste gas fluoratuen erabilerari lotutako inbertsioei buruzko hurrengo taula guztiak betetzeko prozesu hori errepikatu beharko da.

Deialdiaren Excel orrian adierazi ez diren erregai, lehengai, hondakin-kudeaketa edo hozgarriak eta beste gas batzuek kontuan hartu nahi izatekotan, aintzat hartuko da kalkuluan erabilitako emisio-faktorea indarrean dagoen arau- edo bibliografia-iturri aitortu batean agertzea. Halaber, kasu horietan gelaxka hauek eskuz bete beharko dira:

- Erregai berrien erabilerarako, 20. ilara bete beharko da “5 zerrendan jasota ez dagoen erregai”.
- Beste lehengai batzuen erabilerarako, 32. ilara bete behar da “4 zerrendan jasota ez dagoen lehengai”.

- Beste hondakin batzuen erabilerarako, 42. ilara bete behar da “4 zerrendan jasota ez dagoen hondakin-kudeaketa”.
- Beste hozgarri batzuen erabilerarako, 52. ilara bete behar da “4 zerrendan jasota ez dauden hozgarriak eta beste gas fluoratu batzuk”.

Ilara horietako edozein betez gero, D zutabea (“unitatea”) unitatea adierazi beharko da, E zutabea (“emisio-faktorea”) kgCO₂eq/unitate-tan adierazitako emisio-faktorea eta balio hori adierazten den arau- edo bibliografia-iturriaren erreferentzia.

Hondo horiko gelaxkak: prozesuaren balioa adierazi behar da:

- C3 gelaxka “**instalazio berriaren bizi erabilgarria (urteak)**”: bizi erabilgarria 10 urtetik beherakoa bada, bizi erabilgarria adierazi beharko da. Bizi erabilgarria 10 urte edo gehiagokoa bada, 10 urteko balioa adierazi beharko da.
- F zutabea “**Inbertsioaren aurreko egoera**”: D zutabeko (“unitatea”) neurri-unitatea erabilita, inbertsioa egin aurretik prozesuari dagokion **urteko kontsumoa** adierazi behar da.
- G zutabea “**Inbertsioaren ondorengo egoera**”: D zutabeko (“unitatea”) neurri-unitatea erabilita, inbertsioa egin ondorengo prozesuari dagokion **urteko kontsumoa** adierazi behar da.
- C63 gelaxka “**aurkeztutako inbertsioa**”: eskatzen den dirulaguntzaren xede den inbertsio totalaren balioa adierazi behar da.

Sartutako balio guztiekin, kalkulu-orriak ekidindako emisioen balioa eta gastuen efizientziaren balioa kalkulatu du.

Establezimendu berrien edo oraindik ez dauden ekoizpen-lineetako inbertsioen kasuan (d) jarduketa-tipologia), eskaerarekin batera jarduketa bakoitzerako CO₂eq emisioak adierazi beharko dira, aurreikusitako azken egoeran, eta erreferentziazko oinarriko proiektu bat. Azken horren bidez bi egoeren alderaketa egin ahal izango da, proiektuaren deskarbonizazio-ahala zehaztu ahal izateko. Hau da, inbertsioaren aurretik jaso beharreko datuak erreferentzia-aktibo dagozkienak dira. Xede horretarako, ulertuko da erreferentzia-inbertsioa aktibo baliokide baten kostua dela, hau da, ekoizpen-maila berdina duela, hobekuntza teknologikorik, ingurumen-hobekuntzarik eta energia-aurrezkerik gabe, laguntzarik gabe modu sinesgarriak egin daitekeena.

Zeintzuk dira ebaluazio-irizpideak?

Aurkeztutako proiektuen hautaketa- eta ebaluazioa-espedita bakoitzerako lotutako balioen haztapenaren arabera egingo da, hauei dagozkiena:

- a) Balio garbiaren (tonCO₂eq/unitatea) ondoriozko berotegi-efektuko gasen (BEG) emisioaren murrizketa

- b) Egungo instalazioarekin alderatuta, berotegi-efektuko gasen (BEG) emisioen murrizketaren %
 - c) Inbertsio hautagarriaren efizientzia kostuetan
 - d) Hautagaiek emandako memoria tekniko xehatuaren emaitza.
- a), b) eta c) atalen kalkulua egiteko, laguntza eskatzeko inprimakiarekin batera entregatutako Excel orrian emandako datuak erabiliko dira.